



Justina
Aldalur
Iruretagoiena

1922

BIDeGILEAK

Egilea:
Miel A. Elustondo



JUSTINA ALDALUR IRURETAGOIENA

(1922)

Moja bertsozalea

Moja klaratarra da hamazazpi urte zituenetik. Klausuran eman du harrezkeroko bizitza osoa. Bertsozale txikitandik, bertsotan jarri zuen Sor Maria Jesus Agredakoak idatzitako liburua, ama birjinaren bizitza kontatuz. Hark prosaz, Sor Justinak bertsoz. Hark, *Mística Ciudad de Dios* eta, aldiz, gure Sor Justinak, *Ama Birjiñaren bizitza* jarri zion izena: 1.532 bertso ondu zituen bertan, fede handiz eta «gure Jaunak lagunduta». Auspoa bilduman bertso kopururik handieneko ale mardula.

niri izena jartzea Maria Milagros, baina denbora hartan aitajaunak eta amandreak nahi zuten izena jartzen zuten. Baina hain haur txikia ikusi nindutelako, nire izeba Justinak esan zion nire amari, bere ahizpari: “Ume honi emaion bularra ondo egun batzuetan, eta ondoren eramango dinat bataiatzera”. Eduki ninduten hiru egunetan bataiatu gabe. Heldu zen azaroaren 30a eta joan ziren ni bataiatzera. Nire izebak galdetu omen zion sakristau elizan zegoenari, nire izena jartzeko, alegia: “Aizu, zer santu errezatzen dira gaur?”, eta honek erantzun omen zion: “Gaur dira San Andres eta Santa Justina *virgen y mártir*. Zu Justina ez zara ba!”. Orduan kendu zitzaizkion dudak izebari. Eta esan zion nire osaba Jose Luisi: “Zuk nahi baduzu



«Gipuzkoako Aiakoa naiz...»

bion izena jarriko diogu”. Eta halaxe bataiatu ninduten Aian, Esteban santuaren Elizan 1922ko azaroaren 30 egunean. Izenak jarri zizkidaten Justina Luisa.

Nire aita zen Jose Maria Aldalur Lasa, eta nire ama Ignazia Emilia Iruretagoiena Urdanpilleta. Guk Emilia deitzen genion.

Gipuzkoako Aiakoa naiz. Baserriak Zialtzeta du izena. Akordatzen naiz, hiru urte nituenean amak magalean erakutsi zidan Santa Maria errezatzen. Uste dut egunero errezatuko nuela. Sei urte nituenean hasi nintzen herriko eskolara joaten. Oso erraz ikasi nuen leitzen. Amak erakutsi zidan otoitzak errezatzen. Halaxe, nik sei urte-



«Baserriak Zialtzeta du izena...»



Zialtzetako familia



Justina, gaztetan

rekin hartu nuen lehenengo aldiz jauna, beste umetxoan artera joanda. Hamabi urterekin egiten zen komunio solemnea. Zazpi urte nituenean konfirmatu nintzen, lau senide batean: zaharrena nintzen ni eta Prudentzia nirekin; Isabel eta Balentin, amarekin. Nire aita alarguna zen eta bereak ziren hiru ume: Krispina, Joxe eta Maria. Ama Emiliarenak izan gara hamaika: bi txikitan hil ziren; bat zen Antonio Maria, zazpi hilabete zeuzkanean hil zena. Bestea zen Jose Luis; hau gaixo jaio zen eta bi hilabeterekin hil zen. Bataiatuak ziren biak. Hamabi senide bizi izan gara:

Krispina, Joxe, Maria, Inazio, Jesus, Manuel, Justina, Prudentxi, Isabel, Balentin, Gabina eta Inaxi. Joxe txistularia zen, eta Balentin *akordeonista*, soinu-jotzailea.»

DONOSTIARA, ZERBITZATZE LANETAN

«Hamaika urte neuzkanean egin nuen jaunartze handia, eta “hija de Maria” izendatu nintzen. Debozio handia nion amabirjinari. Jaunaren borondatea izan zen ni zerbitzatzera joatea. Amak eta izeba Justinak eraman ninduten Donostiara zer-

bitzatzera, haur bat zaintzera. Etxe hartan ziren Julian Alonso eta Felisa Ibarrola; hau zen nire osaba Prantzisko Mariren arreba, Aiako Izikondokoa. Donostiara joan nintzen 1934ko irailaren 18an. Etxeko haurrak zeuzkan lau hilabete eta izena zuen Jose Manuel. Han pasatu nituen hogeitau hilabete. Haurrak negar asko egiten zuen eta askotan besoan ibiltzen nuen, kantatuz.

Haurraren amak esan zidan: “Jose Manueli erakusten badiozu oinez ibiltzen erori gabe, soineko berri bat emango dizut”. Erakutsi nion eta soineko berria eman zidan, berak josia.

Haurrak ezin zuen hizketan ikasi. Bere aitak ez zekien euskaraz, eta nik ez nekien erdaraz.

Ezin zuen ikasi nire izena eta *Tilta* deitzen zidan Jose Manuel haurrak.

Hamahiru urte eta erdi nituenean, 1936 zela, Donostian gerra hasieran zebiltzan.

Zialtzetara etxeratu nintzenean ikusi nuen etxeko seme zaharrena, nire anaia Joxe, kalean bizi zela bere andre eta alabarekin. Gerra denbora zen, eta nik hamalau urte neuzkan. Nire aita lau semerekin ibiltzen



Haur zaintzan Donostian

zen kanpo lanetan. Baina Joxe falta, Iñaxi eta Jesus gerran. Manuel bakarrik zeukan lagun gure aitak. Eta esan zidan niri: “Etorriko al zara niri laguntzera, belarrak ebakitzera? Belarrari ez zaio inporta mutilak ebaki edo neskak ebaki!”. “Sega zorrozten ez dakit nik.” “Erakutsiko dizut nik.” Esan nion baietz, eta berarekin ibiltzen nintzen beti, kanpo lanean. Jaunari eskerrak indartsua nintzen eta aitari segitzen nion lanean. Moja joan arte, beti laguntzen nion.

Hamabost urte nituenean apaiz Don Hilario Larburu nire konfessore hartu nuen.

Hamasei urte nituenean, beraren eta nire gogoz bi boto egin nituen: birjina eta po-brea izango nintzela nire bizitza osoan.

Nire ama Billabonan zerbitzatzen egona zen senar-emazte aberats eta kristauekin. Hauek eskatu zioten nire amari: “Zure alaba, hamasei urtekoa, arrosarioa errezatzen dakiena, nahi dugu hartu gure alabatzat. Gure ondasunak berarentzat izango dira. Utziko diogu nahi duenarekin ezkontzen”. Ez nuen nahi izan.

Hamazazpi urte nituela sartu nintzen moja Zarauzko Santa Klaran, 1940ko ekainaren 12 eguna zela. Familia denak lagundu zidaten komentuko ateraino. Jaunari esker-rak, nire gogoa bete zen. “Hermana lega” lanetan jarri ninduten baina nik pozik neukan barrua.

Hogeita sei urte nituela “hortelana eta va-quera” jarri ninduten, baratzak eta gana-dua zaintzen. Hogeita zortzi urte nitue-nean apaizak ama abadesarengana bidali ninduen eta esan nion: “Nire barruan sen-titzen dut dei bat, moja etortzeko izan nuenean bezala. Orain beste komentu ba-

tera joateko”. Erantzuna: “Hori etsaiarena da, kendu egin behar da hori burutik”. Nik ezin nuen kendu.

Egunez sufritzen nuen, baina gauez negar eginarazten zidan. Ama birjina eta Jesu Kristo maite ditut beti, baina Aita Eter-noari eskatzen nion, eta berak esperantza ematen zidan.

Berrogeita hamaika urte nituela gaixotu egin nintzen eta orduan kendu zizkidaten neuzkan lan-ofizioak. Donostiako ospi-talean pasa nituen berrogei egun. Don



Donostiako ospitalean, eri. «Sor Ardilla»

Frantzisko Alberdi nuen sendagilea. Hain nerbiosa nengoelako, honek esan zidan: “Zu bataiatu egin zaitugu eta izena jarri dizugu Sor Ardilla”.

Oraindik ere izen horrekin ezagutzen naute.

Berrogeita hamalau urte nituela, ezin nuen agoantatu gehiago eta eskatu nion gotzain jaun Jazinto Argaiari Urduñara betiko joateko baimena. Eta eman zidan eta Ur-



Urduñan sendatu zitzaizkion gaitz guztiak

duñako etxera sartu nintzenean kendu eta sendatu zitzaidan dena.

Orain pozez bizi naiz Jaunari eskerrak.

Ez naiz behin ere damutu moja naizelako.

Santa Klararen ordenan, habito santua hartu nuen 1940ko abenduaren 13an.»

Horraino Justinak bere eskuz idatzia eta elkarrizketa egitera joan gatzazkionean irakurri eta, ondoren, gure esku utzi dizkigun orrialdeak. Hemendik atzerakoak, berak kontatutakoak ditugu, biografia osatze aldera guk galderak eginez erantzun dizkigunak...



Urduñako komentuan, koruan kantari

Ara emen lau bertso
borontate oner
nik ugarituak.

Orduna'ko Santa Klaran
2000 garren urtean

Sor Justina Aldalur

Sor Justina bertsozale

Sor Justinak sortari amaieran erantsitako oharra

Moja bokazioa izan zuen Justina Aldalurrek txikitandik. Ama Birjinarentzako debozio handiak eraman zuen komentura. Gure mojak izan du, ordea, beste debozio bat, handia, edota afizioa: bertsoa, amarengandik jaso zuena. «Gure ama beti bertso kantatzen ibiltzen zen, gaztetan ikasitakoak. Eta, niri, amak egiten zuena gustatzen! “Amak bai? Nik ere bai!”. Eta zortzi urterako hasi nintzen ni ere. Batean doinu bat, bestean beste bat, amak ikasitako doinuak ibiltzen nituen. Gero, bazen gizon bat bertso paperak saltzen ibiltzen zena, hamar xentimoan. Hari erositakoak kantatzen nituen jaiero. Amak

zekizkien denak erakutsi zizkidan. Nik ere, gogo handiarekin ikasten nuen.»

Igande arratsalde zialtzeta baserriko sukaldean izaten ziren festak gogoan hartzekoak dira... *Ezer ez eta festa* esae-rak era horretako ospakizunetan izango zuen, nonbait, oinarri «Jai arratsaldean bezperak izaten ziren elizan; ordu bietan. Handik goiz xamar etortzen nintzen baserrira, gurasoei poz emateko. Bertso-paper piloa neukan eta, haiek kantatuz, gurasoak oso gustura egoten ziren aditzen. Radiorik-eta ez zen denbora hartan. Bertso gehienak San Joserenak ziren, eta


Santa Genobebarenak. Aitari asko gustatzen zitzaizkion San Joserenak, bera Joxe Mari zen eta. Esaten zidan: “Kantaizkidazu, kantaizkidazu...”. Azkenerako —ni ere umea—, aspertu egin nintzen. “Aitta, berori beti San Joserekin dabil!” “Bai, ba, Joxe Mari naiz ni eta!” “Amabirjinari ez dio batere nahi berorrek”, esan nion. Eta berak: “Amabirjina... emakumea zen! San



«Juan Kurtz Zapirain'ek egiña 1929'gn urtean»

Jose... gizona!, familiako burua!”. Hari nahi zion gure aitak, neurri gabe. Gero, pena izaten nuen: “Jesus!, zertarako esan ote diot nik hori!”. Baina edozein garaitan, ganbaran bazen, kanpoan bazen, aitaren betiko eske hura: “Kantaizkidazu San Joseren bertsoak”. Buruz nekizkien denak, eta gogoan dauzkat oraindik ere».

Aitak San Joseren bertsoak nola, Santa Genobebarenak nahi izaten zituen amak. «Hark negar egiten zuen bertso horiek adituta, oso historia tristea zen eta.»



Sor Justinaren bertsoetako bat

BRABANTEKO JENOBEARENAK

Gaur egun, oraindik, Justinak gordeta dauka garai hartan kantatzen zuen bertso liburuxka, fotokopia eginik bada ere: *Brabante'ko Jenobeba*. «Bertso berrietan Juan Kurtz Zapirain'ek egiña 1929'gn urtean.»

Dena dela, Sor Justinak eskura jarri digun liburuñoak baditu gure mojak berak erantsitako bertsoak: bata, hasieran; bestea, tartean; azkenik, lau, amaierakoak.

— + —

Jainkua lagun bertso zar onak
kanta ditzagun gaurkuan,
Jenobeba'ren bixitza santa
dabilkigula buruan.
Gaztetan bertso auek kantatzen
negar egiten genduan,
Zialtzetako sukalde zarrak
danak entzuten zituan.
Santa Jenobebaren bixitza.

Eskuz erantsitako bertsoa

Hona Sor Justinak Zapirainen sortari erantsitako lehenengoa:

Jainkua lagun bertso zar onak
kanta ditzagun gaurkuan
Jenobeba'ren bixitza santa
dabilkigula buruan.
Gaztetan bertso auek kantatzen
negar egiten genduan,
Zialtzetako sukalde zarrak
danak entzuten zituan.



Sor Justinak oraindik gorderik duen liburua

Tartean, berriz, 131.a erantsi dio Sor Justinak Zapiraini:

Agertu ziran Gonzalo eta
Enrike bi borrreruak.
Ama semiak basamortuan
bizirik lagatakuak.
Neurrigabeko poz atsegiñez
kondiak ziran artuak,
pozez bieri eman zizkien
betiko salariuak.

Azken-azkenean, honela dio: «Ara emen
lau bertso borondate onez nik ugarituak.
Orduña'ko Santa Klaran 2000garren ur-
tean. Sor Justina Aldalur».

Esaten zaigu Jenobeba au
noiz il zan ez dakigula.
Au izan leike, denbora artan
iñork esan etzigula.
Baiñan badio, lau ermita eder
basamortuan ditula,
Jenobeba'ren santutasuna
bertan agertzen zaigula.

Sinisten degu Ama Eliza
bat, Erroma'tarra dala.
Berak baimena eman artean
ezer ezin leikeala.

Lau ermita eder egin baziran
Elizan baimena zala.
Iduritzen zait Erroman zer bait
agertu bear duala.

Ama Birjiña Aia'n daukagu
Aitzpekoa apainduta,
Eliza Santak ermita bat an
egiteko aginduta,
ta ez dakigu noiz agertu zan
etzuen eskribituta.
Dakiguna da amandre xarrak
Umetxuai agertuta.

Akordatzen naiz Gipuzkuan zan
nitzan amar urtekua.
Esaten zuen Ama Birjiña
Ezkion da agertua.
Ermitatxo bat an egitea
genduan deseatua.
Eliza Santak etzuan laga,
etzan da egiazkua.

150 bertsoan idatzirik eman zuen Zapirai-
nek Santa Genobebaren bizitza eta dozena
erdi erantsi dizkio Sor Justinak. Bestalde,
santuaren bizitza bertsoan nahi ez duena-
ri bestela kontatzen ere badaki Zialtzetako
mojatxoak: «Genobeba, kondesa zen. Gi-
zona gerrara eraman zuten eta maiordomo

»Igerri niyon, il nintzalako
 »nola egongo zifiaten.
 »Bi gizon prestuk mortu ontara
 »gabaz ekarri ninduten.
 »Beren zakurra il eta neri
 »biziya gorde zidaten».

111 —«Bai Sigifredo! Zefien ona dan
 »Jaungoikuaren laguntza!
 »Beraz ez dezue ezagututzen
 »emaztiaren gorputza?
 »Ona eskuan zuek diamantez
 »apaindutako biatza...»
 Orduan kapan bildu zuben ta
 lertu zitzaion biyotza.

112 Auspez ofietan jarri-ta zion:
 —«Ordia nola ditekete?
 »Amets egin det bizi zerala;
 »bestela ezin liteke.
 »Ai Jaungoikua! Ori neretzat
 »poz geyegiya litzake.
 »Lurrak gañian edukitzia
 »ere merezi ez nuke».

113 Elur-gañian auspez zebillen
 emaztiaren onduan,
 lo zakar batek zozorbatu-ta
 ibilli oi dan moduban.

Zapirainen bertsoetako batzuk

gaizto bat jarri zuten haren etxean. Maiordomoak andrearekin nahi zuen, baina andreak ez zion nahi, eta fama txarrak bidali zizkioten gizonari. Andrea kalteak egiten zebilela eskribitu zioten. Orduan, andre horrek ere karta egin zion gizonari,

maiordomo gaizto hura kentzeko etxetik. Andreak bere morroi bati eman zion karta, eramateko, baina maiordomoak karta hori harrapatu morroiari eta ikusi zuenean andreak nola esaten zion gizonari maiordomoa etxetik bidaltzeko, morroia jo eta hil egin zuen. Maiordomoak. Eta gero, gizonari abixatu zion andreak hil zuela morroi hori, eta holako gauzak egiten zebilela, eta andre hori kastigatu egin beharko zela... Ni bertsoak kantatzen eta negarrari ematen zion gure amak».

Justina bertso kantatzen, horixe festa Zialtzetan. Artean ez zen beste musikarik han. Gero, txistua jotzen ikasiko zuten beste bi anaiak. Beste bat, entzute handiko musikaria izango zen erromerietan...

BALENTIN ALDALUR, ZIALTZETA SOINULARIA

Zialtzetak eman zuen bertso jartzailea besterik. Justinaren neba bat, Balentin Aldalur, *Zialtzeta*, soinulari ibili zen bateko eta besteko herrietan. 1930ean Zialtzetan bertan jaioa, Elgetarekin ikasi zuen soinu

txikia, eta harreman handia izan zuen maisuarekin. Gaur egun, Elgeta soinu jotzen entzuten den grabazio bakarra Balentin Aldalurrek zeukan. Maisuaren grabazioa gorderik zuen, baina ez bere-rik: Zialtzetak ez zuen txapelketetan parte hartu izan, eta grabaziorik merkatuan jarri ere ez, nahiz eta Arrate Irratian oraindik ere entzuten den Balentinen musika... Erromeria zuen mundu, Primi Erostarbe pandero-jolearekin batera. Omenaldia ere jaso zuen Trikitilarien Elkartearen eskutik 2003an...

Paper eta agirien arabera horrela igaro da Balentin Aldalur soinu txikiaren historia-ren orri gutxi-asko hotzetara. Sor Justinak, nola ez, bestelako oroitzapena du nebarena: «Balentinek umetan ez zuen batere gogorik eskolan ibiltzeko, maixua kaste-llanoa jarri ziotelako. Amak esaten zidan: “Esaiozu maixuari honi erakusteko!”. Joa-ten nintzen ni maixuarengana eta: “Oiga, que le enseñe por favor la madre me man-da”. “¿Quién es?” eta, “Valentin Aldalur”. “No se puede. A ese no se puede. Le digo ‘vete a buscar a la madre’, ¡y eso quiere!”



Balentin Aldalur, Zialtzeta



Zialtzeta soinularia eta lagunak



Balentin txori-habiak bilatzera joaten zen pozik. Ez zeukan batere gogorik ikasteko. Gero, hazi zenean, soinua jotzen ikasteko gogoa etorri zitzaion. Ez zekien musika-rik, baina buruz ikasi zuen soinua jotzen eta herri askotara deitzen zioten. Andre bat jartzen omen zuen pandero jotzen eta jendeak horixe nahi zuen. Asko estimatua izan zen».

2005eko maiatzaren 29an hil zen Balentin, 75 urte zituela.

MOJA BERTSO- -JARTZAILEARENAK

Justina Aldalur moja joan zen hamazazpi urte beterik. Aiatik Zarautza, klaratar mojen komentura sartu zen.

Egun seinalatua Justina Aldalurren bizitzan. «Garai hartan haginak ateratzen nenbilen. Aian ez zegoen dentistarik eta Zarautza joaten nintzen horretara. Haginak ateratzera edo... bai, bai, atera ere egin zizkidaten. Joan naiz, eta dentistak: “Holako egunean etorri zaitez berriz”. Eta “holako egun” hartan bertan joan be-

har nuen moja! Beste alde batetik, etxean bazkaria egin nahi zuten, ni moja joan aurretik. Eta esan zidan amak: “Zoaz Zarautzera, eta esaiozu guardia zibilari ea permisoa ematen dizuten zure bi anaiak gerratik etortzeko bazkaria egiteko. Moja joan aurreko azkeneko bazkaria”. Joan nintzen eta etorri zitzaidan guardia zibil gazte bat: “¿Qué quieres?”. “Ustedes saben euskera?” “¡No!” “Es que no sé bien en castellano y a ver si nos entendemos.” Eta esan nion nola bi anaia neuzkan gerran eta beraiek senideak ekartzeko permisoa ematen zutela esan zigutela. “¡No, nosotros no damos permiso! ¡Que escriban a sus capitanes!” Orduan, beste guardia zibil bat azaldu zen, zaharragoa: “¿Qué pasa, qué pasa?”. Eta despedida bazkariaren kontua esan zion guardia zibil gazteak. Eta zaharrak: “¿A dónde vas monja?”. Zarautzera bertara nindoala ba. “Pero en Zarautz hay dos conventos: carmelitas, y clarisas.” Klarisa nindoala. “Es que yo tengo una prima en las carmelitas”, guardia zibil zaharrak, eta gero: “Rezar, ¡eh!”, “¡Sí, sí, ya rezaremos!”. Halaxe. Gero, amak esan zidan

karta egiteko bi anaien kapitanei edo kornelei edo —ez dakit nik zer ziren ba—, ni moja joan aurretik bazkaria egin nahi genuela eta ea etortzen utziko zieten. Inazio zegoen Teruelen eta Jesus zegoen Valladoliden. Inaziok eskatu omen zuen baina ez zioten utzi. Baina Jesusi bai. Hemezortzi urterekin eramán zuten gerrara. *Quinta de leche* esaten zioten harenari. Eta etorri zen Jesus. Bazkaria bageneukan, baina taloarekin, ez ogiarekin, eta bizkarréan motxila zekarrela etorri zen Jesus: bi ogi zuri handi-handi ekarri zituen jateko. Zetorrela etxera, Xalbardingó aldetik pasa behar zuen, eta hantxe zegoen Xalbardingó ama bere semearekin, kontuak esaten. Eta ikusi zuen Jesus eta ea zergatik etorri zen, eta nire anaiak esan ni moja nindoala. Negarrez hasi omen zen andre hura! Gero, esan zidan andre xahar hark: “Aizan!, azkenean uzten al gaitun? Uzten al gaitun azkenean?”. Niri ere pena ematen zidan familia xahar hura horrela uztea, baina nik deia neukan barruan. “Mojak eta erretoreak engainatu haute!”, esan zidan andre hark. “Zer egingo diogu ba! Moja nahiago dut joan.” “Joan hadi, joan

hadi!” Negarrez, andre xahar hura! Eta niri ere negarra eman zidan.»

KOXME LAMARAIN, LUIS VILLASANTE...

Esan dugunez, moja joan zen Justina. Komentu barruko lan gogorrek egiten jardun zuen, bateko baratzean, besteko azien da gobernatzen, eta ez zuen 1955-56 arte bertsolari sena erakusteko modurik izan. Urte haietan, Arantzazuko eliza berria jasotzeko lanetan ari zirela, era askotako ekitaldiak antolatu zituzten frantziskotarrék. Tartean, bertso sariketak. Horietan parte hartzeko deia egin zutenez, hantxe erakutsiko zituen lehenengo bertsoak Sor Justinak.

Gero, izan zen besterik ere, Sor Justinak berak kontatzen duenez: «Behin, etorri zen fraide zahar bat Zarauzko komentura: Koxme Lamarain. Angiozarkoa zen. Aspaldi hil zen. Mojak agurtzera etorri zen, eta kantatzeko esan zien. Ba inork ez zuen kantatu nahi izan. Orduan, nik, San Joserén bertsoak kantatu nizkion, haixek

nekizkien eta. “Ondo da, ondo da!” Gero, fraideak esan zidan: “Bertso jartzen ikasi beharko zenuke”. “Horretan nik ez dakit!” Eta berak: “Kontatu egin behar izaten dira hitzak. Begira: bat-bi-hiru-lau-bost,



Koxme Lamarain apaizak erakutsi zion bertsoa neurtzen

bat-bi-hiru-lau-bost/bat-bi-hiru-lau-bost, bat-bi-hiru...». Horretan ari dela, pianoa jotzen ariko balitz bezala eragiten ditu Justinak behatzak, silabak markatuz, *Mutil koxkor bat* doinuaren konpasean. Hurrena, zortziko txikia eta handia bereizi dizkigu: «Hamar-zortzi, bertso handia da. Txikia, zazpi-sei egiten da». Eta atzera behatzak erabiltzen ditu Justinak, *Maritxu nora* zoaz doinuaren arabera: bat-bi-hiru-lau, bat-bi-hiru/bat-bi-hiru, bat-bi-hiru... Koxme Lamarainek hiru urte egin zituen klaratar mojekin Zarautzen, Justinak hamazazpi urte zituenetik hogeitaz urte arte. Ondoren, beste fraide bat ere gertatu zen gure mojaren bidean. Luis Villasante frantziskotarra...

Gogo-jardunak zuzentzera joan ohi zen Villasante Zarautza, klaratarren komentura. Bertsoak eskatu zizkion fraideak gure mojari, *Arantzazu* aldizkarirako. Batak eskatu, besteak idatzi, argia ikusi zuten Justina Aldalurren bertsoek. Horrek ez zuen, haatik, mojaren gogoia ase. «Liburu handi bat eskribitzeko gogoia neukan nik, baina abadesak esan zidan: “Emakumeak

eskribitzea ez da libre, ez al dakizu hori? Harrokeria dator hortik!”. Nik hura aditu eta utzi egin nituen bertso-lan denak.»

Justinak hogeita hamazazpi urte egin zituen Zarautzen, errezoan ez ezik, lanean beltz. «Urtean denbora askoan ibiltzen nintzen belarra ebakitzen. Besteek ez zekiten eta. Niri, berriz, erraza iruditzen zitzaidan. Baina ailegatu nintzen berrogeita hamar urtera, eta indarrak gutxitu egin zitzaizkidan. Eta, “bitamina edo, ez al didazue zeozer emango?», nik mojei. Eta indizioak eman zizkidaten. Borondate onarekin, baina medikuari esan gabe, eta okerrago jarri nintzen, gaixotu. Medikuak giltzurrunetakoa nuela esan zidan. Eta ospitalera bidali ninduen. Borondate onarekin, baina indizio haiek kalte egin zidaten. Inork ez zuen kulparik. Medikuak esan zidan: “Sin receta no hay que tomar”. Eta esan zidan: “Tiene anemia de causa desconocida”. Baina sendatu nintzen.» Ikusi nahi duenak badu zer ikusi (arestian erakutsi dugun argazkia, Justinarena, ospitalean, hexur eta axial). «Bai, Sor Ardilla ezizena jarri zidaten...»

URDUÑAKO ZERUA

Hogeita hamazazpi urte egin zituen Zarautzen. Urduñara joan zen gero. Hantxe ospatu zituen urrezko ezteiak ere, moja sartu zeneko 50. urteurrena, alegia, bozkario handiko eguna gure mojaren bizitzan. 1991ko uztailak 20 zituela, Urduñan bildu ziren Justinaren senide, iloba eta lehen-gusu-lehengusinak. Mojaren etxean ez daude ahaztuta. «Meza santu ederra izan zen. Koruan, berriz, mojak, eta haien artean Justina bera, kantuan. Gero, bazkari bikaina eskaini ziguten, mojak beraiek prestatu zutena. Ezin ahaztuzko eguna izan zen, zoragarria.»

Han zen erretiroa hartu zuen garaian, 75 urte bete zituenean. «Behin, etorri da nire iloba bisitan eta: “Zein da hemen superiora?”. “Madre Begoña.” “Harekin hitz egin behar det.” Etorri zen Madre Begoña eta iloba horrek esan zion: “Quiero que le de permiso a mi tía para que escriba versos en un libro”. Zaharra nintzen eta gure superiorak, berriz, bere aldetik: “Si no es tarde...”. Nik esan nion orduan: “Se hace

lo que se puede”. Pentsatu nuen: “Orain ote det eskribitzen hasteko garaia? Eta ze liburu eskribitu behar diot ba nik orain! Okurrentzia gure ilobarena!”. Horrela, gogoratu nuen ama birjinaren bizitza eskribitu zuela Madre Agredak, erdaraz, eta nik: “Hauxe jarriko det nik bertso-tan”. Hasi nintzen eta, ezin. Buruak ere bazituen nire urteak! “Hara, Jauna, nahi

baduzu nik liburua eskribitzea, akordatu bedi!”. Eta burura etortzen zitzaidan gauzak nola jarri. Liburuan esaten ziren gauza batzuk ez nituen entenditzen eta pasa egiten nituen, baina entenditzen nuena bai, hura jarri nuen bertso-tan.» Lanaren zailtasunak bistaratu zitzaizkion orduan: teknika, bertsoaren neurri-errimak. «Hitz kontatuak eta puntu igualak behar nituen,



Aldalur Iruretagoiena sendia, Sor Justinaren urrezko ezteien ospakizunean

eta askotan ezin asmatu! Baina, nolabait ere, burura etortzen zitzaizkidan. Baneukan estampa bat, Niño Jesus-ena, eta eskatu egiten nion: “Lagunduidazu. Ezin dut bertsoa jarri”. Eta halaxe jarri nituen. Hilero jartzen nituen bertsoak ilobari bidaltzen nizkion karta batean. Hilero-hilero. Gero, niri erdarazko liburu hura

akabatu zitzaidanean, ilobak liburua egin zuen. Hil zen gizajoa! Joxe Mari Orbego-zo Aldalur zen hura, nire ahizpa Mariaren semea...»

Justinak iloba Joxe Mariri, eta honek Antonio Zavalari, lana bukatuta zegoenean... «Hark egin zuen liburua. Horixe da ba nire kontua».



Sor Justinaren urrezko ezteiak



«Ama Birjiñaren bizitza»

Liburuaren azala

ANTONIO ZAVALA

Telefono deia jaso zuen Antonio Zavalak 1998ko martxoaren hondarrean. Aiako alkatea zen bestaldean, bertara joateko eskaria egiten zion, zerbait bazuela eta. Herri hartako udaletxean zen biharamu-nean aita Zavala. Zain zituen Juan Karlos Zuloaga alkatea eta Sor Justinaren iloba Jose Mari Orbegozo. Orduantxe izan zuen aita Zavalak gure mojak egindako lanaren lehenengo berria. Zavalak liburuaren sarreran idatzia duenez, «Andik laster, fotokopia-mordo aundia etorri zitzaigun. Izeba mojak Orduñatik Aiara bialdutako orrienak ziren, aren illobak, lehen aitatu-

tako Joxe Mari Orbegozok eta bere emazte Jemma Aurizeneak, txukun eta arretaz gordeak. Baiña ez danak batera etorriak, egin-alean baizik. Aldi bakoitzean bertso-mordoska bat, aurretik kartatxo bat zala».

Eskutitz horietan, egindako lana, izandako zailtasunak eta bestelako zenbait xehetasun idatzi zituen Justina Aldalurrek. Aldiro, berriz, bertso sorta handia: bateko aldiko eskutitzarekin batean, ehun eta berrogeita hamar bertso; bestean, laurogei; hirurogei, hurrena... Sor Maria Jesus Agredakoaren *Mística ciudad de Dios* liburua bertsoan jartzen behar izan zituen 1.532 bertsoak osatu arte.

HILEAN-HILEAN, BERTSOAK

«Illero bezela, emen biraltzen dizkizuet...» hasiko du, beti edo gehienez, iloba Jose Marirentzako eskutitza. 1997ko otsailaren 8koa behar du lehenengo gutunak. 1998ko martxoaren 25koa da, berriz, azkena. Bitartean, hilero jardun zuen bertsoak idatzi, sorta bildu eta eskutitza idazten iloba Jose Mariri. Eskutiz horiek, batetik, Sor Justinaren diziplinaren berri ematen digute. Bestetik, berriz, hainbat jakingarri. Hona eskutitzetako zenbait pasarte, egunkari modura antolaturik:

1997ko maiatzak 4. «Illero bezela, emen biraltzen dizkizuet bertsok. Jaungoikoaren laguntzarekin, nere eguneroko lanak utzi gabe, eta iñori ezer esan gabe, egiten ditut bertso auk. Abadesari ematen diot karta itxita, eta jartzen dio seillua ta biraltzen dizue. Ondo daki zuk eskatu zeniola biraltzeko baimena. Eta berak eman zidala. Igandeetan eta siestako denboran egiten ditut geienak. Baiña beiñere baiño bixkorrago nabil, egitan. Ama Birjiñak laguntzen dit...»

1997ko ekainak 28. «Emen biraltzen dizkizuet nere bertsok. Jaunaren laguntzarekin



Bertso kantatzeko ohitura hartu zuen Urduñan



Sor Justina, Gasteizko komentuan

egin ditudanak. Il ontan beñere baiño lan geiago sortu zaigu, baratzen eta gaixoakin. Baiño beñere ez det uste orren fuerte izan naizenik, Jaunari eskerrak. Atzo sega xar bat pikatu nuan, eta belar txar eta asuna ebakitzen pasa nuan arratsaldea, baiña oso ondo. 74 urte dauzkat, baiña etzait iruditzen. [...] beñe baiño erreztasun geiago izan det bertsoak jartzeko Ama Birjiñaren bizitza. Ikusten dezue: askotan letrak oker egiten ditut. Ori nere auldadean kulpada.»


1998ko otsailak 21. «Ikusiko niñuzuen telebisioan, jua dan ostegun eta ostiralean.

Duda gabe esango zenduen: “Zer dabil gure izeba?”. Esango dizuet egia. Nik zueri biraltzen dizkizuet bertsoak, zuek librua egingo dezuen esperantzan. Eta zueri biraltzen dizuetan kopiak egiten ditut, neuk akordatzeko nola ziran. Gure mojak zabaldu didate ni bertsolaria naizela. Eta onera gu bixitatzero etorri ziranak, eskatu ziraten zerbait kantatzeko edo asmatzeko. Ez det balorerik nik asmatu ta arpegira esateko. Eta erakutsi nien, zueri biraldu-tako danen kopiak koaderno zar batean. Auxe izan da dana. Nai izan zuen zabal-tzea telebisioan.»

1998ko martxoak 25. Azken eskutitza da. Hona pasarte bat. «Illoba Joxe Mari, emen biraltzen dizut Ama Birjiñaren bizitzaren azkeneko karta. Orain zure kontu gelditzen da. Estimatu genduke onera ere biraltzea saltzeko, al baldin bada. [...] Orduñan eta Amurrian zabaldu due nola ni ari naizen Ama Birjiñan bizitza euskeraz bertsoan jartzen. Jaunari eskerrak, ni oso ondo nabil osasunez. Loari kendu diot pixka bat, baiña orain pozez nago, zuk librua egingo dezun esperantzan...»

Bai liburua egin ere. 1.532 zortziko nagusiak ale bakarrean sartzen lanak izan zituen Antonio Zavalak. Ordu arteko Auspoako liburuetan ez bezala, letra tamaina txikixeagoa, ohi ez bezalako letra mota, orrialde bakoitzean lau bertso gabe zortzi sarturik liburuaren lodiera gehiegizkoa galarazi zuen. 1.532 bertso, Antonio Zavalak idatzitakoaren arabera, «bearbada, iñoiz argitara atera dan saillik luzeena».

Honakoak, berriz, sailaren azkenekoak, ama birjinaren bizitza kontatu eta kantatu ondoren, Sor Justina Aldalurrek agur egi-teko baliatzen dituenak.



Liburuaz geroztik, ZER aldizkarian ere hartu izan du parte



1527

Eskerrik asko guztiagatik
Jaungoiko gure Jaunari,
merezi gabe Ama Birjiña
guri eman zigunari;
bere Semean odolarekin
erosi ginduanari,
bere bizitza eskribitzea
erakutsi didanari.

1528

Jakin dezagun: Ama Birjiña
bertsolaria genduan,
aingeruakin bertsok kantatzen
autsi egiten zituan.
Nik paperikan gabe ezin det,
ori ikasi ez nuan;
zorionak bertsolari danari,
segi kantatzen munduan.

1529

Gipuzkoako Aiakoa naiz,
etxe Zialtzetakua,
Esteban Santuaren eleizan
niñuen bataiatua.
Eleiza ontan asko alditan
sakramentuak artua,
oso maitea genduan danok
Ama Doloretakua.

1530

Basarritikan atera nitzan
moja-etxean sartzeko,
barruan neukan deia beteaz
beti moja bizitzeko.
Illoba batek eskatu zigun
libru bat eskribitzeko,
Jaunak eman dit argitasuna
bertso berritan jartzeko.

1531

Orbegozotar Joxe Mari da
aizparen seme maitea;
Aian bizi da, Aurizenea
Jemma dauka emaztea.
Gozategi Enparantzan daude,
zortzigarrego atea,
onek egingo digu librua
maitetasunez betea.

1532

Aueri biraltzen dizkiet nik
bertsok libruan jartzeko,
Ama Birjiñan debozioa
biotzetan indartzeko.
«Eman eiguzu zure eskua
fedeari bizitzeko,
eta azkena degun orduan
artu zeruan sartzeko.»

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Aldalur Iruretagoiena familiari, Sor Justinaren ahizpa Prudentxiri eta iloba Karmeleri

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Hermínio Madinabeitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2797-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2801-7

L.G.: VI-445/08

BIDOGULEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística